

#berdingabeaZara

Bere izaeragatik, laguntzagatik edo buru osasunarekin duen konpromisoagatik gustuko duzun pertsona horri omenaldia egin nahi badiozu... Hemen duzu aukera! Landetxeetan egonaldiak eta bazkari edo afari ederrak zozketatuko ditugu!

PARTE-HARTZAILEAK

- 18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute. **Edozein nazionalitate edo biziterri** duten pertsonak har dezakete parte.
- **Adin txikikoek ere guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin** parte hartu ahal izango dute. Baimen agiria dokumentuaren amaieran dago eskuragarri.

HELBURUA

- **Gure bizitzari “ukitu berezia” ematen dioten pertsona berdingabeei omenaldia egitea:** ematen diguten laguntza eskertu nahi diegun pertsonak, euren izaera edo talentuagatik baloratzen ditugunak, edo buru osasunarekin konpromiso berezia dutenak...
- **Senidea, laguna, bizilaguna, osasun-langilea, nagusia, lankidea...** edozein izan daiteke. Zuk nahi duzun pertsona! Bat baino gehiago ere omendu ditzakezu.
- Omenaldiak buru osasunarekin lotura badu, hobe!

PARTE-HARTZEA

- Parte-hartzaileek **omendu nahi duten pertsonari buruzko testua** bidali behar dute (testuaren luzerak ez du axola. Laburra izan daiteke).
- Parte-hartzaileak **omendutako pertsonaren izena** aipatu beharko du (abizena ez da beharrezkoa) eta berekin duen **harremana:** senidea, laguna...
- Pertsona horrekiko **errespetua** azaldu beharko du mezuak.
- Agifesen ustetan **baldintza horiek betetzen ez dituzten ekarpenak** ez argitaratzeko eskubidea du elkarteak.
- Partaide baikoitzak **nahi adina ekarpen** aurkeztu ahal izango ditu. Zenbat eta gehiagotan parte hartu, orduan eta aukera gehiago izango ditu zozketa irabazteko.
- Testuak **euskaraz edo gaztelaniaz** idatzi daitezke.

- Ekarpentak info@agifes.org helbidera bidali behar dira ondorengo datuekin batera: Izena, abizena eta emaila.
- Agifesez **datu pertsonalen pribatutasuna** bermatzen du: zozketa kudeatzeko erabiliko dira soilik (Datuen babeserako adierazpena irakurri hurrengo orrian).
- **Datu pertsonalak eman nahi ez dituen parte-hartzaileak** jardueran parte hartu ahal izango du, baina ez da zozketan sartuko.

EKIMENAREN IRAUNALDIA

- Ekimena 2017 urtean zehar gauzatuko da.
- 3 zozketa egingo dira urtean zehar, eta aurkeztutako ekarpen guztiak zozketaren batean sartuko dira (segun eta noiz bidali diren).

AURKEZTUTAKO EKARPENEN ARGITALPENEA

- Aurkeztutako ekarpenak Agifesen webgunean (www.agifes.org) argitaratuko dira, eta elkartearen sare sozialen bidez zabalduko dira.
- Ekarpena argitaratzeko garaian, berau bidali duen pertsonaren izena aipatuko dugu. Parte-hartzaileak goitizena erabili nahi badu, emailaz jakinarazi dezake ekarpena bidaltzearekin batera.

ZOZKETAK

- Parte hartzeko, omenaldi-testua bidaltzeaz gain, **partaidearen ondorengo datuak** helarazi behar dira: Izena, abizena eta e-maila.
- Parte-hartzaileen artean **3 zozketa** egingo dira (sari bana zozketa bakoitzean), ausazko sistema bidez, eta **irabazleek saria aukeratu ahal izango dute: bazkari edo afora bi pertsonarentzat Donostiako Gandarias eta Lete jatetxeetan (establezimendu bietako batean) edo Espainiako landetxeren batean egonaldia** ('La vida es bella' bonoa: gau bat edo gaua gosariarekin aukeratutako landa-hotelean: <http://www.lavidaesbella.es/escapadas/escapate-dos-dias>). Zozketa horietako bakoitzean, irabazle 1 eta ordeko 1 izango ditugu. Hamabost eguneko epean irabazlea lokalizatzeko aukerarik ez badago, sariari uko egiten badio edo erantzuten ez badu, ordekoarekin jarriko gara harremanetan.
- Zozketak honako egunetan egingo dira: **uztailak 14, irailak 22 eta abenduak 15**. Data bakoitzean zozketan sartuko dira aurreko hilabeteetan (zozketaren aurreko eguneraino), bidali diren ekarpenak, aurreko zozketetan parte hartu dutenak izan ezik.
- **Ekarpen bakoitza sartuko da zozketan**; beraz, parte-hartzaile batek testu bat baino gehiago bidaltzen badu, zozketa irabazteko aukera gehiago izango du.

IRABAZLEEKIN HARREMANETAN JARTZEA

- Zozketa egin eta astebete beranduago, gehienez, irabazleekin harremanetan jarriko gara emailaz. Adierazitako epean erantzunik jaso ezean, ordekoekin jarriko gara harremanetan.

ONARPENA

- Parte hartzearekin batera aurrez adierazitako oinarriak onartzen ditu partaideak.

DATUEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu parte-hartzaileen datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Berdingabea zara' ekimeneko partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela, inola ere, hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke harremanetan info@agifes.org emailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera).

GURASOEN EDO TUTOREAREN BAIMENA

_____ jauna/andreak, _____ NAN zenbakidunak,
_____-ren ama, aita edo tutorea dela baieztatzen du eta
_____-ri baimena ematen dio 'Berdingabea zara' ekimenean
parte hartzeko, egitasmo honetarako zehaztutako oinarriak onartuz.

“Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Berdingabea zara' ekimeneko partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela, inola ere, hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldeztuz. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke harremanetan info@agifes.org e-mailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera)”.

Data:

Sinadura: